

BERRICANO

Se sitúa en un llano y al pie de una pequeña eminencia alcanzando una altitud media sobre el nivel del mar de 593 metros.

López de Guereñu recoge los diferentes vocablos con los que se le ha citado en distintos documentos, así como el año en que emerge. Aparece como Verricano en el año 1257 y Berricano en 1294.

Dada la proximidad a Vitoria, las vistas que de allí se observan, la tranquilidad de que se goza, etc..., ha supuesto que se hayan levantado varias casas unifamiliares, en número igualan al de casas de labranza allí existentes. Los chalets se sitúan delante y al Oeste de las últimas casas rurales labriegas que conforman esta pequeña localidad de Berrícano.

El caserío de Berrícano se alinea al mismo lado de la carretera que se dirige a Buruaga, con la salvedad de uno que se halla al otro lado, pero alejado, al Sur de este núcleo.

BERRIKANO

Ordeka batean aurkitzen da, mendi-tontor txiki baten oinetan, itsas mailatik 593 metroko batezbestako altituderaino iritsiz.

Lopez Gereñuk jasotzen ditu herri honi dokumentu desberdinetan eman izan zaizkion deiturak eta orobat zein urtetan agertzen den aipatua ere. Horrela, 1257ean Verricano bezala agertzen da eta Berricano izenarekin 1294ean.

Gasteiztik hurbil aurkitzen bait da, bertatik eskaintzen diren ikusmirengatik eta dagoen lasaitasunarengatik, etxe familibakarrak altxatu dira bertan, lehendik zeuden baserriak adina bai kopuruan. Txaletak, Berrikanoko herriska hau osatzen duten azken nekazal etxeen aurrekaldean eta Mendebaldera aurkitzen dira.

Berrikanoko baserriak eta Buruagarantz doan errepidearen alde berean kokatzen dira denak, bat izan ezik, hau beste aldean aurkitzen bait da, baina nukleo honetatik Hegoaldera urrundua.



Casa n.° 6.
Concatenación de edificios.
Chalets: nuevas construcciones.

6 zk. etxea.
Eraikin kateatuak.
Txaletak: eraikin berriak.

Vamos a comenzar la exposición de los distintos caseríos que conforman este lugar por el primero que nos encontramos al llegar a la localidad y que es, precisamente, el que se halla al Sur, algo desconectado del resto de edificios. Lo hemos catalogado con el n.° 6. Es un conjunto de edificios anexos, hoy día cerrados o al menos no habitados de manera continuada, en los que la vivienda ocupa la parte anterior del edificio situado más al Sur de todo el conjunto. La zona de trabajo se situaría en el espacio que existe delante de la cabaña delimitado en sus laterales por la casa y la carretera.

Herri honetako baserri desberdinen deskribapena egiterakoan, herrira hurbiltzean lehenik topatzen dugunetik hasiko gara, lehentxoago aipatu dugun Hegoaldeko eta gainerako etxeetatik zerbait banandua aurkitzen dan etxe horrexetik hain zuzen. 6 zenbakiarekin katalogatu dugu. Elkarri erantsitako etxe-multzo bat dugu hau, gaur egun itxiak edo era jarraitu batean biziliarrik ez dutenak behintzat, bertan etxebizitzak multzo osoaren Hegoalderantzenera egiten duen edifizioaren aurrekaldea okupatzen duelarik. Lanerako tokia, etxolaren aurrean dagoen zabalune hori izango litzateke, bi alboetatik etxeak eta errepideak mugatzen dutela.

Casa n.° 7.
Aupada y disciplinada fachada.
Detalle de inscripción.

7 zk. etxea.
Fatxada aupatua eta disziplinatua.
Inskripzio-xehetasuna.

Más adelante, cogiendo el camino de la izquierda que parte de la carretera vecinal, nos acerca al primero de los caseríos que se sitúan a un mismo lado del camino. Se ha catalogado con el n.° 7. Se trata de un edificio de planta rectangular con cubierta a dos aguas y con el caballete perpendicular a fachada principal que mira al Mediodía. 1846 es el año de su construcción como así reza en inscripción grabada en el dintel del acceso. Los huecos como es ya muy repetido en este tipo de construcciones, levantadas en esta época, es simétrica. La distribución del edificio con la parte anterior a vivienda y la posterior a cuadras sigue los canones de las casas tipológicamente similares. El portal actúa de elemento distribuidor de las dependencias y caja de escaleras, que se sitúan en la planta baja.

Frente a su fachada se encuentra sencilla construccion rectangular en cuyo interior se halla la dependencia que aloja al horno de pan. Así mismo, anexo a su alzado posterior, lleva el estercolero.

Aurrera jarraituz, eta auzo-errepidetik ezkerretara irteten den bidea hartuz, errepidearen alde berean aurkitzen diren baserrietako lehenera hurbiltzen gara. 7 zk.arekin katalogatu dugu hau. Oin angeluzuzeneko etxe bat da, bi isurkiko teilatuarekin, eta galdurrak Mendebalderantz begiratzen duen fatxadarekiko perpendikular egiten duela. 1846an eraiki zen etxe hau, sarrerako atalburuan aurkitzen den inskripzioak dioen legez. Baoak berriz, aldi honetan jasotako eraikinekin hainbeste bider gertatzan den bezala, simetrikoak dira. Banaketari dagokionez, berriz, aurrekaldean etxebizitza duela eta atzekaldean ikuiluekin, antzeko tipologiako kanonen arabera antolatua dagoela esan behar da. Ataurreak, bere aldetik, beheko oinean aurkitzen diren barrundegien eta eskailera-kaxaren arteko elementu banatzaile bezala jokatzen du.

Fatxadaren aurrean, eraikin angeluzuzen sinple bat aurkitzen da, bere barruan ogia erretzeko labearen gela-moduko bat duela. Era berean, atzeko hormari erantsita, simaurtegia darama.

Casa n.º 5.
Antes y después
del remozamiento.

5 zk. etxea.
Zaharberritu
aurretik eta ondoren.

Siguiendo el camino, arribamos al catalogado con el nº 5, con el caballete de su cubierta paralelo a la fachada principal. Esta, así como, los huecos que en ella se abren, han sido remozados en su última reforma. La cabaña, de una planta, se halla en retranqueo. La cuadra ocupa la parte posterior de la casa y la vivienda la anterior.

La recogida de aguas pluviales de los tejados es muy común a esta zona ya que hasta hace poquísimos años no se disponía de agua corriente en los distintos caseríos. El almacenaje del agua que se recogía, se disponía en aljibes o depósitos, unas veces sobre tierra y otras bajo tierra, en pozos que se perforaron en los terrenos lastrosos en que se asientan estos pueblos.

En esta casa nº 5, el depósito se halla bajo tierra, es decir en pozo fabricado sobre placas de lastras.

Eta bideari jarraituz, 5 zk.arekin katalogaturiko etxera iristen gara. Kasu honetan teilatuaren galdurra fatxada nagusiarekiko paralelo egina dago. Fatxada hau eta bertako baoak ere berrituak izan dira azkena egindako obran. Etxola berriz, oin bakarrekoa bera, atzeraxeago eraiki da. Ikuiluak etxearen atzekaldea okupatzen du eta etxebizitzak aurrekoa.

Teilatuko euri-urak biltzeko ohitura oso zabala zen eskualde honetan, ez bait zuten bertako baserriek oraindik oraintsu arte ur korrontearen abantailez gozatzeko aukerarik. Horrela bildutako ura pozadera edo deposituetan jasotzen zen, lurazalean batzuetan eta lurpean bestetan, herri hauek ezartzen diren lur lastratsuetan egindako putzuetan.

5 zk.dun etxe honetan, lurrazpian aurkitzen da depositua, lastrazko plaken gainean egindako putzu-zuloan alegia.

Iglesia parroquial.
Esbelta y pulida torre.
Conexionados accesos al pórtico y al templo.

Parroki eliza.
Dorre liraina eta landua.
Arkupe eta tenplurako sarrera kateatuak.

A continuación se halla la iglesia parroquial con advocación a la Natividad de Nuestra Señora. Es de planta rectangular, con dos capillas laterales a ambos lados de la cabecera. A los pies del templo se halla la bien trazada torre de dos cuerpos, el superior de sillería en el que se abren cuatro huecos, actualmente uno de ellos cegado, donde se alojan las campanas. Rematando el segundo cuerpo, se halla sencilla cúpula troncocónica. El maestro de obras de esta torre fué don Ramón de Segura y fué llevada a cabo en el año 1793.

Ondoren Natibitateko Ama Birjinaren debozioko eliz parrokia aurkitzen da. Oinplano laukizuzena du honek eta burualdearen bi alboetara kapera bana doa. Elizaren oinetan, berriz, ondo trazatutako bi gorputzeko dorrea dakusagu: goikoa harlanduzkoa du, bertan lau bao irekitzen direla, bat takatua gaur egun, kanpaien alojaleku bezala. Bigarren gorputza errematatuz, kupula piramide-enborkara sinple bat aurkitzen da. Dorre honen obra-maisua Ramon Segura izan zen eta 1783an burutu zuen.



Artístico y bello crucero.
Escudo clausurando ventanal románico.

Gurutzadura artistikoa eta ederra.
Armarria hertsiz lehiate erromanikoa.

Anexo al alzado Sur del templo lleva la casa cural, que se levantó en el año 1802, como reza en el dintel del acceso de la misma, que a su vez da entrada a pequeño pórtico desde el que se accede al interior de la iglesia bajo arco apuntado.

En el espacio delante de la iglesia y semioculto por el ramaje exuberante de los árboles que allí se levantan, se halla un bonito crucero cuyo fuste se encuentra coronado en uno de los lados por Cristo crucificado y en el otro por Virgen con el Niño.

En el costado Oeste vemos dos arcos de medio punto, uno de ellos tapiado.

En la cabecera del templo e incrustado en ventanal románico del cual resta el sobrearco ricamente exornado, se sitúa el escudo de armas, colocado en el año 1859, del Arzobispo de Zaragoza, hijo de este lugar, D. Juan Saénz de Buruaga Ortíz de Landaluce, por haberse arruinado la casa-palacio natal de dicho personaje.

Frente al templo parroquial y al otro lado del camino, se encuentra el juego de bolos al aire libre.

Elizaren Hegoaldeko hormari erantsita apezetxea doa, 1802an eraikia, bertako sarrerako atalburuan esaten den bezala. Sarrera honek, bere aldetik, arkupe txiki batera ematen du eta hemendik elizara sartzen da arku apuntatu baten azpitik.

Elizaren aurreko zelaiunean, eta bertan altxatzen diren zuhaitzen adaje ugariak erdi-estalita, gurutzadura polit bat aurkitzen da, alde batean Kristo gurutzatua eta bestean Ama Birjina Haurrarekin dituela.

Mendebaldeko saihetsean erdi-puntuko bi arku ikusten ditugu, horietako bat takatua.

Elizaren burualdean, berriz, leiho handi erromanikoan txertaturik eta dotore apaindutako gainarkua sobratzen zaiola, herri honetako seme eta Zaragozako Artzapezpiku izan zen Juan Saenz Buruaga Ortiz Landaluze Jn.aren armarria aurkitzen da, 1859an ipinia, pertsonaia horren jauregi jaiotetxeak lur jo zuelako.

Eliz parrokiaren aurrean eta bidearen beste aldetik, aire zabaleko bolatoki bat dago.

Casa n.° 3. Disciplina organización edificatoria.

3 zk. etxea. Eraikuntz antolakuntza disziplinatua.

Reanudando el recorrido llegamos a la casa n.° 3, de amplia fachada, y extensas las vertientes de su cubierta. Varias construcciones complementarias se hallan en su parte posterior.

El acceso a las cuadras se halla en uno de los extremos de la fachada. La zona destinada a vivienda de la planta baja ocupa el espacio entre el acceso principal y el otro extremo de la fachada. En el dintel del acceso lleva grabada una cruz sobre base escalonada en ambos lados. Las habitaciones del piso se sitúan todas ellas en la zona anterior del edificio, y abiertas sus ventanas al alzado principal.

Gure ibiliarekin jarraituz, 3 zk.dun etxera iristen gara, fatxada zabalekoa eta teilatu-isuri hedatuekin. Hainbat eraikin osagarri aurkitzen dira bere atzekaldean.

Ikuiluetarako sarrera fatxadaren alboetako batean aurkitzen da. Etxebizitzatara destinaturiko beheko oinarren zatiak, berriz, sarrera nagusiaren eta fatxadaren beste alboaren arteko espazioa okupatzen du. Sarrerako atalburuan, bestalde, bi saihetsetatik mailakaturiko oinarri batean finkatzen den gurutze bat darama. Pisuko gela guztiek etxearen aurrekaldera ematen dute, beren leihoak horma nagusira irekitzen direla.

Casas números 2 y 1 con detalle de escudete y campechana cabaña.

2 eta 1 zk. etxeak armarritxoaren xehetasunarekin eta etxorde jatorrarekin.

Próximo a éste se levanta la casa catalogada con el nº 2, que presenta esbelta fachada disponiendo los huecos de éste en forma simétrica. En el dintel del acceso se halla grabado escudete tronchado por banda engolada, cruz flordelisada en una parte y águila explayada en la otra. La cabaña se halla anexa a uno de sus alzados laterales.

Finalizamos la exposición caseríl de este lugar con el nº 1, de aspecto desaliñado, de planta baja y aprovechamiento bajo cubierta con el caballete paralelo a la fachada principal. El acceso presenta un acortamiento de su luz como consecuencia de las pequeñas ménsulas que sobresalen en la parte alta de sus jambas.

La cuadra y pajar se hallan seguidamente, en construcción anexa a la anterior y de iguales características. El estercolero y un borde de estructura de madera, con algún ensamble interesante, en su alzado Levante, completa el conjunto de edificaciones que conforman esta unidad agropecuaria.

Etxe honetatik hurbil 2 zk.arekin katalogatu duguna aurkitzen da, fatxada segail batekin eta bertako leihoak era simetrikoan banatuak dituela. Sarrerako atalburuan banda engolatu batek ebakitako armarritxo bat darama, lilihoria alde batean eta arranoa hegoak zabalduta bestean. Etxordea albo-hormetako bati erantsita eraikia dago.

Herri honetako etxe-erakusketa 1 zk.arekin katalogatu duguna deskribatuz amaituko dugu. Zarpail-itxurakoa dugu hau, oin bakarrekoa eta teilatu azpiko probetxamenduarekin; galdurra, bere aldetik, fatxada nagusiaren paraleloan doa. Sarrerak, berriz, zerbait laburtua aurkezten du bere argia bere ate-zangoen aldean irteten diren mentsula txikien ondorioz.

Ikuilua eta lastategia aurkitzen dira ondoren, aurrekoari erantsita eraikiak eta karakteristika berdinekin. Simaurtegia eta bere ekialdeko horman mihiztadura interesgarriko egurrezko egitura duen izkina bat izango lirateke nekazaritza eta abelazkuntzako unitate hau osatzen duen edifizio-multzoaren zertzelada aipagarrienak.